

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERNEDOKO UDALA

2020-2021 ikasturtean euskara ikasteko beka deialdia

Udal honek, 2021eko martxoaren 17an egindako bilkuran, dirulaguntza deialdi honen oinarriak onetsi zituen:

- 2020/2021 ikasturtean euskara ikasteko laguntzen deialdia.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, argitaratu egiten da:

2020/2021 ikasturtean euskara ikasteko beka deialdiaren oinarriak

1. Xedea: 2020ko urrian hasi eta 2021eko irailean amaituko den ikasturtean euskara ikasketak egiten laguntzeko beka ematea, bai eta udako ikastaroak eta barnetegiak egiteko ere (joan-eto-riretarako gastuak ez dira sartzen, ez eta mantenua eta ostalua ere barnetegietara joanez gero).

2. Euskara ikasteko beka eska dezakete hamasei urtetik gorako pertsonak, baldin eta ikastaroa hasi baino lehen eta ikastaroan zehar etenik gabe Bernedon errolatuta badaude. Egindako ikastaro edo barnetegi adina beka eska daitezke.

3. Bekaren zenbatekoa: bekaren zenbatekoa matrikula kostuaren edo ikasketa gastuen ehuneko 50 artekoa izan ahal da, gehienez. Edonola ere, beka ezin izango da izan 250,00 euro baino gehiago eskatzaileko eta urteko.

4. Aurrekontuko kreditua: 1.000 euro, 335.480.000 aurrekontu aplikaziokoa.

5. Dirulaguntza esleitzeko bete behar diren baldintzak: eskatzaileek laguntza eskuratzeko, gutxienez, eskolen ehuneko 75era joan direla egiaztatu beharko dute edo, hala behar denean, matrikulatuta dagoen ikastaroa (edo ikastaroak) gainditu izana egiaztatzen duen euskaltegiaren, ikastegiaren edo erakunde ofizialaren agiria aurkeztu.

6. Dirulaguntzen bateragarritasuna: eskatzaileek udalaren laguntzak eta beste batzuk eskura ditzakete, baina bi horien guztien baturak ezingo du gainditu ikastaroaren matrikularen kostua.

Onuradunak xede bererako beste dirulaguntza edo laguntzaren bat lortzen badu, udalari jakinarazi beharko dio. Beste laguntza batzuk jaso dituela eta horien zenbatekoa zein den jakin ondoren, udalak emango duen laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jaso diren gainerako laguntzekin matrikularen kostuan zer defizit geratu den hartuko da kontuan.

7. Aurkeztu beharreko eskabideak eta dokumentazioa: eskatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Beka eskaera egitean:

- Inprimaki ofiziala; udal bulegoetan emango da, eta hartan helburu berarekin beste laguntzarik eskatu edo eskatuko den adierazi behar da.

- NANaren fotokopia.

- Eskatzailearen aitortpena, zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela adierazten duena (eredua).

- Matrikularen egiaztagiria, euskaltegiak edo ikastegiak emana. Barnetegiaren kasuan, xehakatu egingo dira irakaskuntza, mantenu eta ostalua gastuak.

– Matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen agiria, banketxeak emana.

b) Ikasturtea bukatutakoan:

– Eskolen ehuneko 75era joan izanaren egiaztagiria, euskaltegiak emana, edo matrikulatuta egon den ikastaroa (edo ikastaroak) gainditu izana egiaztatzen duen agiria.

– Helburu bererako beste laguntzaren bat jaso bada, hura egiaztatzen duen agiria.

8. Eskabideak aurkeztea eta epeak: laguntza eskaerak eta agiriak 2021eko irailaren 17a baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

Ikastaroa bukatu izanaren frogagiriak, eskoletara joan izana edo ikastaroa gainditu izana egiaztatzen dutenak, 2021eko urriaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira.

9. Eskabideak aztertu eta haiei buruz ebaztea: Euskara teknikariak aztertu eta balioetsiko ditu eskabideak. Alkateak aurkeztu diren eskaeren inguruko dekretua emango du, teknikariaren txostenak zer dioen jakin ondoren.

10. Azken xedapena: Oinarri hauetan xedatu gabekoetarako, honako hauek hartuko dira kontuan: Udala onartutako dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza; herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen Legea; Dirulaguntzen Lege Orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Bernedo, 2021eko martxoaren 22a

Alkatea

RUBÉN MARTÍNEZ CRESPO